

Buruko eta lepoko minbizirako erradioterapiaren gida



Erradioterapia hartzeko zaude Nafarroako Ospitaleguneko Erradioterapia eta Onkologia Zerbitzuan. Liburuxka honetan behar diren argibideak aurkituko dituzu zure tratamenduaren prozesua eta geroko indarberritzea ulertzeko.

Oharra

Material honek informazioa eta prozedura estandarrak ditu bere baitan. Paziente bakoitzak banakako tratamendua hartzen duenez, zure zainketa medikoez arduratzen den lantaldeak emanen dizkizu zure kasuari dagozkion argibide berariazkoak; bai zuk bai zure zaintzaileek horien arabera jokatu beharko duzue.

Gerta liteke banakako informazio hori ez izatea dokumentu honetan dagoen bezal-bezalakoa. Faborez, segi iezaiezu zaintzen zaituzten profesionalen lantaldearen jarraibideei.

Erradioterapia eta Onkologia Zerbitzua.

J Pabilioia. Irunlarrea k., 3

Nafarroako Ospitalegunea

31008 Iruña. Nafarroa. Espainia.

Tel.: 848 428474 - 848 428475

Diseinua: Komunikazio eta Diseinu Unitatea.

Navarrabiomed, 2016.

Laguntzailea:



Prozeduren gida

1	Erradioterapia	5
2	Zure zainketa medikoen lantaldea	6
3	Kontsultak	7
4	Simulazioa	8
5	Tratamenduaren plangintza	10
6	Tratamenduaren programa	11
7	Jarraibide orokorrak	12
8	Hurrenez hurreneko kontsulta medikoak	14
9	Albo-ondorioak eramaten	15
10	Autozainketen gomendioak	17
11	Ariketak matrailezurrerako eta leporako	21
12	Zainketa etxean, tratamendua burututakoan	27
13	Jarraipena	29
	Argibide erabilgarriak	31

1 Erradioterapia

Erradiazio bidezko terapiari erradioterapia ere esan ohi zaio; minbizia tratatzen du, modu eraginkorrean, energia handiko izpiak erabiliz doitasunez aurkitzeko eta suntsitzeko gorputzean minbiziak jotako zelulak. Erradioterapia **hezurren erradiografiaren antzeko prozedura bada ere, minbiziaren kontrako tratamenduan handiagoa da erradiazio dosia, eta denbora luzeagoan ematen da.**

Erradiazio mota asko daude eskura. Tumore mota zein den, non dagoen eta nolako handia den, horien guztien arabera erabakiko da zein den zuretako aukerarik hoberena.



2 Zure zainketa medikoen lantaldea

Espezialista talde batek parte hartuko du tratamenduaren prozesu guztian: onkologo erradioterapikoak, fisikoak, onkologo medikoak, teknikariak, erizainak, nutrizionistak, psikologoak, idazkariak, laguntzaileak, zeladoreak...

Prozesua izugarria iruditzen bazaizu, faborez, mintzatu **zure kezkez zure arreta medikoaren laguntzaz arduratzen den lantaldearekin. Hemen daude laguntzeko eta sostengu emateko**, bai zuri bai tratamenduan zauden bitartean zure zainketaz arduratzen direnei.



3 Kontsultak

Erizainekin, lehen kontsulta izanen duzu simulazioko eskanerraren aurre-aurretik. Tratamenduaren prozesuaren ganean edozein duda izanez gero, kontsulta horretan argitzen ahalko duzu. Eta gehiago jakin nahi baduzu, material osagarria ematen ahalko dizu zure erizainak.

Oroitu **adostasuna entregatu beharko duzula, sinatua,** oraindik egin ez baduzu.

Gainera, **zure onkologoak eskatzen ahal du dentistaren kontsultara joan zaitezzen** erradioterapia hasi aitzin. Orobat, beharrezkoak izan daitezke beste zerbitzu batzuen kontsulta osagarriak, tratamendua baino lehenago edo tratamenduak irauten duen bitartean.



4

Simulazioa



Tratamendua planifikatzeko, beharrezkoa da, **aurretik, saio hau egitea**. Bertan, zure erreferentziako onkologo erradioterapikoak finkatuko du, zehatz-mehatz, non dagoen tratamendua behar duen aldea, ehun osasuntsua ahalik eta gehien babesteko.

Kalkulutzen den denbora: **45 - 60 minutu**.

- Simulatzailearen mahaian etzanen zara eta ahalik eta erosoan egoteko moduan ezarriko zaituzte. Oso garrantzitsua da zuk ere laguntzea, mugitu gabe egoteko esaten dizuten jarreran.
- Aurpegian marka batzuk pintatuko dizkizute errotulagailuz, baina ezabatuko dizkizute probaren ondotik.
- Gero, buruaren eta lepoaren maskara egingen dizute, zure neurriko. Sare termoplastikoko ehuna da, hasieran bigun, bero eta heze egonda ere, zenbait minuturen buruan hoztu eta zurrunduko dena, zure aurpegiaren, besaburuen eta lepoaren forma harturik. Maskarak lagunduko du zu geldi-geldi atxikitzen erradioterapia saioetan, jarrera zuzena segurtatu beharrez.
- Erradiografiak hartuko dizkizute eta, horren ondotik, baita tomografia konputerizatu bat ere (plangintzako eskanerra). Xedea da tratamendua hartuko duen aldearen hiru dimentsioko irudia edukitzea.

Argitu beharrekoak: eskanerra egin bitartean, teknikariak gelatik aterako dira, atea itxiko dute eta kontrolerako leihotik behatuko dizute.


Prozedurak dirauen bitartean deus behar baduzu, normal mintzatu, interkomunikadoretik adituko dizute. Beharrezkoa bada, makina itzal dezakete eta gelan berehala sartu.



5 Tratamenduaren plangintza

Gero, zure onkologo erradioterapikoak, erradiofisikoekin batera, zure tratamenduaren plangintza egingen du, tratamendua hartuko duen aldeko organoen ingurua marraztu ondoan. Plangintza prozesu honek zazpi-hamar lanegun iraun ohi du.

Zure tratamendu plana onetsirik, hasteko eguna emanen dizute aditzera.



6 Tratamenduaren programa

Erradioterapian hasten zarelarik, zentroko Idazkaritzara jo beharko duzu tratamenduaren hitzorduak biltzera.

Zer hutsune dauden eskura, horien arabera izanen da eskainiko dizuten **ordutegia**. Zer nahiago duzun esan dezakezu baina, artatzen diren pazienteen kopuru handia dela eta, jakin behar duzu ez dela beti posible izanen zure eskaerari erantzutea. Erradioterapiako tratamendua astelehenetik ostiralera ematen da, jaiegunetan eta asteburuetan pausatutik.

Zure tratamenduak, normalean, sei-zazpi aste **iraunen du** eta, besterik ez bada, modu ambulatorioan egingen da.



7 Jarraibide orokorrak

Itxarongelara ailegatu bezain agudo, **eman zure izena mostradoreko laguntzaileei**, erregistra dezaten. Haiek emanen dizute aditzera medikuekin edo erizainekin kontsultarik pasatu behar ote duzun.

Jarraian, egon itxarongelan harik eta tratamendura pasatzeko deitzen dizuten arte. Laguntzaileak zurekin joanen dira beti.

Beharbada eskatuko dizute gerritik gora arropa erantzeko eta mantala janzteko. Laguntza emanen dizute mahaira igotzeko.

Tratamendua, berez, laburra da, minutu batzuk baizik ez du irauten; hala ere, **gerta daiteke bukatu baino lehen 15-20 minutu egotea tratamenduaren artoan.**

Tratamenduaren lehen egunean eta gutxienez ere astean behin, erradiografiak hartuko dizkizute saioa hasi aitzin. Hori egiten da erradiazioa alde zuzenera zuzendua dagoen egiaztatzeko. Batzuetan, doikuntza txiki batzuk egin behar izaten dira.

Doikuntza horiek teknikariek egingen dituzte, eta zure onkologo erradioterapikoak egiaztatuko dira.

Tratamendurako makinak handiak dira eta gerta daiteke dabiltzanean zaratatsuak izatea; **hala ere, saiatu erlaxatzen eta ohi bezala arnasa hartzen. Ez duzu deus sentituko. Behin behar den jarreran egonda, ez mugitu harik eta tratamendu**

saioa bukatu dela adierazten dizuten arte.

Zurekin dagoen teknikaria aretotik aterako da, atea itxiko du eta kameren bidez zainduko zaitu. Zuri begira egonen da denbora guztian. Beharrezkoa balitz eta zuk adieraziko bazenu **besoa goitituz edo mintzatuz, teknikariek aukera dute makinaren erradiazioa berehala geldiarazteko eta barnera sartzeko.**

Tratamendua aurrera joan ahalean gerta liteke zure onkologo erradioterapikoak nahi izatea tratamendua hartzen ari den aldea eta markak aldatu. **Galderarik edo dudarik baduzu zure tratamenduaz edo tratamenduaren programaz, esaiezu artatzen zaituzten pertsoneri.**

Tratamendua buruturik, mostradorean ohartarazi kontsulta programaturik baldin baduzu.





Hurrenez hurreneko kontsulta medikoak

Tratamendua hartzen ari zaren bitartean, **kontsulta izanen duzu astean behin medikuarekin**. Bisitak goizez edo arratsaldez egingen dira, zure tratamenduaren ordutegiaren arabera, eta aldatzen ahalko da aste barrenean jaiegunik bada edo zure medikua falta denean. Aldaketa horietariko batzuk gaztigurik gabe gertatzen dira. Mostradorean emanen dizute horren berri, horrela gertatzen denean.

Halaber, **erizainekin ere izanen dituzu jarraipena egiteko kontsultak**.

Oroitarazten dizugu kontsulta eskatzen ahal duzula, osasun laguntza behar duen arazoren bat izanez gero. Esan ezazu kontrolean eta erizainek baloratuko dute. Beharrezkoa baldin bada, medikuarengana bidaliko zaituzte.

Botikak eta alergiak

Segurtasuna izan nahi dugu zure botikak modu seguruan hartzen dituzula. Faborez, ekarri hitzordu mediko bakoitzera zure botika guztien zerrenda osoa eta eguneratua, produktu mota guztiak barne, izanik horiek salmenta librekoak edo errezeta medikoa behar dutenak. Sartu zerrendan bitaminak, gehigarri dietetikoak eta belarrez eginiko produktuak.

9

Albo-ondorioak eramaten

Zer gorputz atal ari garen tratatzen eta tumorea zer etapatan dagoen, horren araberakoak izanen dira **albo-ondorioak**.

Gehienak desagertuko dira zure tratamendua bukatu eta aste gutxi batzuetara. Zure medikuak emanen dizu bakoitzaren berri:

- **Tratamenduaren aldean gerta daiteke gorritzea, edo azkura ateratzea, edo ezkatzea.** Hori tratamendua hasi eta bi-hiru astera gertatu ohi da. Ez hazkarik egin larruazalean, ezta arropa esturik erabili ere. Faborez, galdetu zure espezialistari azkura eztitzen laguntzen duten botikez.
- Gerta daiteke zu **ohi baino nekatuago egotea**. Franko deskantsatu eta ez egin ahalegin handirik. Hala ere, paziente batzuei on egiten die jarduera arinak egiteak, hala nola 15-20 minutuz ibiltzeak, bi-hiru aldiz egunean. Nekatzen bazara, gelditu eta pausatu.
- Gerta daiteke **ilea erortzea** tratatzen ari garen aldean. Ilearen galera horrek ez du zertan iraunkorra izan, hartutako erradiazio dosiaren eta zure ilearen ezaugarrien arabera.
- Gerta daiteke **janarien zapoetan aldaketak sumatzea** eta baliteke gogorik ez izatea ez jateko ez edateko. Orobat gerta daiteke goitika egiteko gogoia izatea. Hobe duzu elikagai arinak jatea edo otamenak egunean zenbait aldiz egitea, hiru otordu astun baino. Erizaintzako kontsultan aholku emanen dizute nutrizioaren gainean eta, beharrezkoa delarik, dietista batek jarraibide gehiago emanen

dizu. Ezin baldin baduzu jan, zure medikua zurekin mintzatuko da zunda bidez elikatzeaz, likidoak eta mantenugaiak bestela hartu ahal izateko.

- Gerta daiteke **irenstean mina izatea**, edo irensteko zailtasunak izatea, edo zauriak ahoan eta odola listuan. Hori gertatzen bada, beharbada komeni zaizu janari beratzak edo likidoak hartzea zure ahoa oneratu artean. Oinazerako botikak errezetatuko dizkizugu, horien premia duzularik.
- Gerta daiteke **dastamena galtzea** (jatekoen zaporea). Gerta daiteke zure dastamena itzultzen hastea tratamenduaren ondoko laugarren edo seigarren astera, eta hortik aurrera hobetzen segitzea. Paziente batzuei, ordea, dastamena ez zaie itzultzen tratamenduaren aurretik zegoen neurrian.
- **Gerta daiteke zure listua lodi eta likatsu bilakatzea. Likidoak edan, zure listua** hainbeste loditu ez dadin. Garbitu ahoa bikarbonatozko soluzio batekin (ikus 17, 18 eta 19 orriak, "Ahoaren eta eztarriaren zainketa"). Zure listua hobetuko da tratamendua bukatu baino bi-lau hilabete geroago. Baliteke bizi bitartean ahoa idor gelditzea; hala ere, denboraren joanean, listu-guruinek badute lehengoratzeko eta listua berriz ere sorrarazteko ahalmena.
- Zure sinu paranasalen aldea (sudurra) tratamenduaren eremuan baldin bada, gerta daiteke **sudurreko kongestioa** izatea eta sudurretik odola ateratzea. Muki lehorrak mehetzeko lagungarria izanen zaizu sudur barnea garbitzea zenbait aldiz egunean gatz-soluzio bat erabiliz.

10 Autozainketa gomendioak

Gelditu erretzetik eta ihes egin tabakoaren keari. Badaude zuri eta zure ingurunekoei erretzetik gelditzen laguntzeko programak. Argibide gehiago behar baduzu, galdetu osasun etxean.

Jatea

Oso garrantzitsua da behar adina jatea eta edatea hidratazio maila ona izateko eta pisua mantentzeko tratamenduak dirauen bitartean. Medikuen nahiz erizainen taldeek nutrizioaren balorazioa egingen dute, baita jarraipena ere, kontsultetan pisuaren kontrola eginez. Elikadurari buruzko gomendioak emanen dizkizute:

- Orokorrean, hautatu zapore neutroak eta, ahal dela, urrundu jaki frijitu etatik eta gantzetatik. Kaferik hartzen baduzu, gosarian baizik ez dadila izan.
- Arraina eta haragia ongi eginak jan, urrundu arrain gordinetatik.
- Garbitu letxua eta barazkiak ura eta lixiba erabiliz (1-2 tanta /1 litro ur).

Beharrezkoa balitz, kontsulta eskatuko litzateke mantenu zerbitzuan.

Ahoaren eta eztarriaren zainketa

Zure dentistarengana joatea eta ahoa ongi zaintzea garrantzitsua da tratamendua baino lehen, tratamenduaren bitartean eta tratamenduaren ondotik. Dentistak erakutsiko dizu hortzak nola garbitu eskuila eta hortzetarako haria erabiliz, eta

fluorraren terapia nola erabili, beharrezkoa bada txantxarrari aurea hartzeko. Oroitu funtsezkoa dela ahoko higiena egitea otordu bakoitzaren ondotik, eskuila biguina erabiliz. Ahoaren edozein zati tratamenduaren eremuan badago, ahoa garbitu beharko duzu bikarbonatoa edo zure lantaldeak gomendatuko dizkizun beste kolutorio batzuk erabiliz; horrela, ahoa garbi eta fresko atxikiko duzu eta lagungarria gertatuko zaizu ondoek infekziorik ez sortzeko.

Bikarbonatoz garbitzeko jarraibideak:

- Nahasi 2 koilaratxokada bikarbonato litro 1 ur epelean. Garbitu eta gargarak egin otorduen aitzinetik eta ondotik (egunean lau-sei aldiz). Zure listua osoa lodia edo likatsua bada eta goragalea eragiten badizu, saiatu koilaratxokada gatz erdia gehitzen bikarbonatoaren nahasturari. Horrek lagunduko du listua hain lodia ez izaten.

- Hasi ahoa bikarbonatoz garbitzen erradioterapia tratamenduaren lehen egunetik eta segi egunero garbitzen asteak dituen zazpi egunetan. Zure tratamendua burututakoan, segi bikarbonatozko nahastura erabiltzen, gutxienez ere sei hilabetez.

Listu lodia baldin baduzu, gauaz hezegailu bat erabili ohe ondoan.

Paziente batzuei on egiten die ohatzearen burualdea gutxienez ere 30 gradu goititua izateak.

Saihestu ahoko eta eztarriko ehunetan errea eragiten ahal duten substantziak, konparaziorako:

- Tabakoa.
- Alkohola.

- Edari karbonatatuak.
- Fruta zukuak (zitrikoak, anana edo tomateak).
- Elikagai hagitx onduak eta minak.
- Muturreko hozberoetan dauden jan-edatekoak.
- Salmenta libreko aho-garbitzaileak (salbu eta alkoholik gabeko aho-garbitzaileak).
- Hestebeteak.

Larruazalaren zainketa

Erradioterapia onkologikoko erizainek jarraibideak emanen dizkizute larruazala zaintzeko: krema hidratatzailea erabiltzea eta igerileku eta jacuzietan ez bainatzea.

Krema larruazalean ezartzeko jarraibideak:

1. Hasi krema paratzen tratamendua hartzen ari den aldeko larruazalean, tratamenduaren lehen egunetik.
2. Krema geruza mehe batean zabaldu, egunean hiru bat aldiz.
3. Arras garrantzitsua da lehenago eskuak garbitzea larruazalean edozein zainketa egin aitzinetik eta ondotik.
4. Ez paratu kremarik larruazalean erradioterapiako tratamendu bat baino lehenagoko lau orduetan.
5. Tratamendu guztiak bukatutakoan, segi krema paratzen, harik eta larruazala osotara sendatu arte.

Garrantzitsua: Eskatu kontsulta erizaintzarekin zure larruazala heze bilakatzen

bada, edo likidorik badario, edo haragi bizian bada.

Nola bainatu

Dutxatu ur epelez, xaboi leuna erabiliz. Larruazal irradiatuan ez erabili eskuak baizik. Ez erabili belakirik ez paper-zapirik.

Ileak nola kendu (bizarra egitea eta depilazioa)

Erabili makina elektrikoa ileak kentzeko. Ez erabili loziorik bizarra egin edo depilatu aitzin, ezta horren ondotik ere. Alkohola dute eta larruazala erre egingen dizute; horregatik, ez dira alde irradiatuan erabili behar.

11

Ariketak matrailezurrerako eta leporako

Ariketa hauek diseinaturik daude mugimenduaren zabalera handitzeko (malgutasuna) lepoan nahiz matrailezurrean.

Segi ondoko jarraibideei:

- Hasi bederatzi ariketa hauek egiten erradioterapia abiatzean.
- Erradiazioaren ondorioz, ehuna tente sumatzen da tratamendua hartzen ariden aldean. Garrantzitsua da zuk ariketa hauek egunean zenbait aldiz egitea tratamenduak irauten duen denboran, baita hura burutu eta hilabete batzuk iragan bitartean ere, harik eta mugimendu guztia berreskuratu arte lepoan eta matrailezurrean.
- Egin ariketak poliki, zure giharrei luzatzeko aukera emanez.
- Eskatu errehabilitaziora bideratzeko, sumatzen badituzu aurpegia edo lepoa hanpatzen, edo segitzen baduzu mugimendua mugaturik edukitzen edo eguneroko jardueretan (janztea, bainatzea, apaintzea) zailtasunak izaten.

Egin bederatzi ariketak egunean hiru aldiz: goizean/arratsaldean/ gauean.


Errepikatu ariketa bakoitza bost aldiz, eta mantendu posizio bakoitza bost segundoz.

Ondoko bi ariketa hauek lagunduko dizute, zertan eta **ahoaren funtzioa kontrolatzen.**

- 1 Goititu ezpain ertzak (irriñoa bortxatzeko keinua).



- 2 Hurrupatu masailak eta bultzatu ezpainak kanpo aldera.




Ondoko bi ariketa hauek lagunduko dizute, zertan eta ahoa osotara irekitzen.


- 3** Luzatu poliki zure ahoa harik eta irekitzen den arte.



- 4** Aurreratu matrailezurra, irudiak erakusten duen bezala.



5 Mugitu matrailezurra alde batetik bestera.




Ondoko lau ariketa hauek lagunduko dizute, zertan eta **zure lepoa malgu eta jarrera egokian atxikitzen.**

Jar zaitez jarrera egokian.

- 6** Makurtu lepoa, kokotsa bular aldera hurbilduz, irudiak erakusten duen bezala.



- 7** Hurbildu kokotsa lepora eta bulkatu burua gibelera, tolestu gabe.



- 8 Aurpegia aurrera begira duzula, hurbildu belarria besaburura.

Egin gauza bera beste aldeko besaburuarekin.



- 9 Biratu burua zure besaburuari begiratz bezala, baina gorputza mugitu gabe. Egin gauza bera beste aldeko besaburuarekin.



12 Zainketa etxean, tratamendua burututakoan

Maiz, erradiazioaren albo-ondorioek okerragora egiten dute azken tratamenduaren ondoko 10-14 egunetan.. Hurrengo asteetan hasiko dira pixkana-pixkana hobetzen. Bizkortzen laguntzeko, garrantzitsua da ondoko jarraibide hauei segitzea:

Hona zer egin behar den:

- Edan likidoak ausarki.
- Jan kaloria eta proteina asko dituzten janariak, eta/edo gehigarri dietetikoak, zure zaintza medikoen taldeak erakutsi bezala. Horrek lagunduko zaitu sendatzen eta pisu galerari aurea hartzen.
- Segi larruazala zaintzen, zure lantaldeak erakutsi bezala.
- Eginahalak egin eguzkiak ez jotzeko tratamendua hartu duen aldean. Erradiazioaren eraginpean paratzen den larruazala lehenago kiskaltzen ahal da. Tratamendua hartu duen aldea eguzkitan estali gabe paratuz gero, 45 edo gehiagoko FPSa duen eguzki-babesa ezarri, UVA eta UVB izpien kontra babesturik egoteko. Oroitu babesa maiz paratu beharko duzula, bereziki izerditan edo uretan bazaude.
- Segi ahoa garbitzen bikarbonatozko soluzioarekin, tratamendua bukatu ondoko sei hilabetez, gutxienez ere. Erabili listuaren ordezkioak, zure medikuak agindu bezala.
- Segi egunero matrailezurreko eta lepoko ariketekin, tratamendua bukatu ondoko sei hilabetez, gutxienez ere.
- Ekin berriz intentsitate ertaineko jarduerari, hala nola ibiltzeari.

- Joan zure dentistarengana, jarraipena egin diezazun, sei-lau hilabetetik behin.
- Segi fluorrezko tratamenduekin.
- Oso garrantzitsua. Hortzetan lanen bat egitea behar baduzu, oroitarazi beti zure dentistari erradioterapia hartu duzula.
- Sintoma berriren bat baldin baduzu, hala nola zauriak, edo ohikoa ez den beste edozer, eman horren berri zure osasun etxean.
- Jo larrialdi zerbitzura, presako tratamendu medikoa edo arreta behar izanez gero.

Zer ez duzun egin behar (saihestu jarduera hauek):

- Saihestu erretzea edo edari alkoholdunak hartzea.
- Saihestu janari minak, garratzak edo ertz zorrotzak dituztenak eta zitrikoak jatea, besteak beste, harik eta ahoa eta eztarria arrunt sendatuak egon arte eta, sendaturik egonik ere, toleratzen duzularik baizik ez.
- Saihestu edariak muturreko hozberoetan hartzea, harik eta alde irradiatua arrunt sendatua egon arte.
- Honez gero, eta dentistarekin hurrengo hitzordua izan arte, saihestu ordeko hortz-haginak erabiltzea, non ez den jateko, edo zure medikuak erabiltzen ahal dituzula esan arte.
- Saihestu loziorik erabiltzea bizarra egin aitzin, ezta horren ondotik ere, eta orobat larruazala erretzen ahal duen beste substantziarik, harik eta tratamendua hartu duen aldea sendatu arte.

Gerta liteke tratamendua burututakoan hitzordua ematea erradioterapiako kontsulta berean, sintomak hobeki kontrolatzeko.

13 Jarraipena

- Normalean, zuretako OTA edo erresonantzia magnetikoa eskatuko dugu tratamendua hasi eta hiru hilabetera, nolako erantzuna eman duzun baloratzeko. Gero, hitzordua emanen dizugu jarraipena egiteko kontsultarako, Erradioterapia eta Onkologia Zerbitzuan, B- behean. Etortzen zarenean, garrantzitsua da hartzen ari zaren botika eta gainerakoen zerrenda eguneratua ekartzea. Sartu zerrendan bitaminak, gehigarri dietetikoak eta belarrez eginiko produktuak.
- Etorkizunean, biopsiarik edo prozedura kirurgikorik behar baduzu tratamendua hartu duen aldean, edo hortz-haginak artatzea (ateratzeak, kirurgiak eta abar), eman hartutako erradioterapien berri mediku eta erizainei. Argibide gehiago behar izanez gero, zure dentista edo Oinarrizko Osasun Laguntzan duzun espezialista zure onkologoarekin jar liteke harremanetan.

Jakingarriak:

Erradioterapia eta Onkologia Zerbitzua.

J pabiloia.

Irunlarrea k., 3. Nafarroako Ospitalegunea.

31008 Iruña. Nafarroa. Espainia.

Idazkaritzako tel.: 848 428474 - 848 428475

Erizaintzako kontsultako tel.: 848 428458 - 848 428460

Elkarteak:

Onkologia Erradioterapikoko Espainiako Elkarteak. SEOR.

www.seor.es

Minbiziaren Institutu Nazionala. NIH.

www.cancer.gov/espanol/instituto

Minbiziaren aurkako Espainiako Elkarteak. AECC.

www.aecc.es



Erradioterapia eta Onkologia Zerbitzua

J Pabilioia Irunlarrea k., 3. Nafarroako Ospitalegunea. 31008 Iruña. Nafarroa. Espainia.

